

» DISKOA

Ertzetatik kanpo



Iker Barandiaran
@ikerBarandiaran

Indie deritzona tribu oso berezia da; jatorrizko izaera edo izana erabat galduta edo lanbrotuta duena. Hala, musikaren negozioak, diskoetxeek, banatzaileek eta kontsumitzaileek bizi izan dituzten eraldaketen ondorioz, gaitza da BBK Live eta halako jaialdien parte-hartzaileak independentetzat hartzea. Eta badira beste eszena askotan izaeraz eta jarreraz multzo honetakoak (oro har hartuta) baino izate askoz independenteagoa dutenak. Hala ere, ezinezkoa da indie deritzoten horiek guztiak multzo berean sartzea, ñabardura asko daude beraien artean.

Maruriko talde gazte honek ere tribu horretan ikusi izan du bere burua. Sorreran bi neskak eta bi mutilek osatzen zuten taldea, ingelesez abesten zuten eta -ezin da ukatu- Belakoren *tempo* eta kadentzia oso presente zuten. Halakoa da beraien estreinako *Lurra/Haizea/Ura/Sua* lana, teklaturaz jositako malenkonia eta energia koktel bizia. Baina tartean Gaztearen Maketa lehiaketa irabazi eta hainbat aldaketa izan ditu taldeak.

Iaz *In the ocean* singlea kaleratu zuten, Manchesterreko traza handia daukana: pausatua, iluna eta minimalista, baina 70eko hamarkadako energia zantzu batzuk ere badituen. Eta aurten *Demak* disko luzea oso-osorik euskaraz eta hirukote formatuan -jada ez dago emakume ahotsik-, bestelako eskaintza erdituz.

Etiketak-ek edaten du noise-popetik, baxua nabarmendu egiten da eta riff interesgarria dauka; gainera dantzagarria ere bada. *An-*

Demak

DEKOT

Antichoke records, 2018



tartida-k kutsu elektronikoagoa eta intimoagoa dauka, nahiz eta rock jantzia indarrez janzten duen. *Amildegietan*-ek badu zorrik Pixies-ekin eta rock melodikoagoa zein intentsoagoa uztartzen ditu. *Etxea* barnekoia- goa eta pausatuagoa da, baina jostaria. *Aldentze agindua* erritmo biziko pieza rockeroa da, ñabardura jostariak ere badituen. *Entzulea*-k emozioekin eta intentsitatearekin jokatzeko du Kerobiaren pareko eztanda egin artean. *Egonezin undergrounda* zapalgailua da, indartsua eta bortitza. *Gonbidatua* dantzagarria da, zarata eta disco-a ezkontzen dituen. *Arreba* elektro-pop irudimentsua. Eta *Talako neska* pausatua eta gardena.

Badu, deko, Dekot-ek aurrera egiteko ausardia eta etiketa arraio horren ertzetan, baita rock indartsuan ere, sortzeko abilezia. ■

Dekot taldea
Marurin
sortu zen
2014an.

